

PRESENTACIÓN

La revista de estudios históricos Leyçaur nació, como es sabido, en 1990, en el marco de las celebraciones del 375 aniversario de la fundación de la villa de Andoain. Ahora, catorce números después, y recién celebrado nuestro 400 aniversario, presentamos este LEYÇAUR 14, que viene a ser una recapitulación, un resumen, una historia general de Andoain realizada principalmente, aunque no en exclusiva, en base a todos esos trabajos que han ido conformando los diferentes *leyçatures* a lo largo de estos 26 años.

El encargo para realizar esta tarea fue adjudicado, a propuesta de la Comisión evaluadora de la convocatoria de Ayuda a la investigación para la realización de una historia general de Andoain —que conformaron los reconocidos historiadores andoaindarras M.^a Rosa Ayerbe Iribar, José Antonio Rodríguez Ranz y Susana Truchuelo García—, a la Asociación de historiadores guipuzcoanos “Miguel de Aranburu”, por resolución de alcaldía de 29 de junio de 2015. La coordinación del trabajo ha estado a cargo de Elena Torregaray Pagola, acompañada en los trabajos de edición por Álvaro Aragón Ruano. El elenco de historiadores que participan en el proyecto son José Antonio Mujika-Alustiza, Carlos Olaetxea Elozegi, Jokin Lanz Betelu, Ana Galdos Monfort, Iñaki Garrido Yerobi, Estibaliz González Dios, Iñigo Imaz Martínez, Carlos Rilova Jericó, Iker Etxeberria Ayllon y Pedro Barruso Barés.

No contábamos hasta ahora, con excepción de la monografía “Aspectos de la vida e historia de Andoain” realizada por Ricardo Arregi, y publicada en 1970, con una historia general de nuestra localidad en un volumen único. En esta historia de Andoain que ahora presentamos podremos encontrar los acontecimientos más relevantes de los que se ha tenido noticia, o en los que nuestra comunidad ha formado parte como sujeto de la historia. Protagonista masculino y femenino, pues se ha tratado de recoger esa historia desde todos los puntos de vista y tratando de hacer visibles a esas mujeres muchas veces, demasiadas, olvidadas e incluso ninguneadas en una historia de la que también eran sujetos fundamentales.

Este trabajo es la suma de muchos trabajos, desde el poblamiento prehistórico en el entorno del Adarra y el Belkoain, que ha estudiado Jose Antonio Mujika-Alustiza, y el Andoain en la Edad de Hierro de Carlos Olaetxea para la prehistoria; la investigación de Jokin Lanz sobre el Andoain de la época romana, o la aldea medieval que nos descubre Ana Galdós, pasando por los tiempos de expansión que relata Iñaki Garrido, o el siglo XVII, una centuria de cambios, como lo denomina Estibaliz González, continuando con un siglo de luces con algunas sombras y el corto siglo XIX que estudia Carlos Rilova, o el proceso de modernización desde la última guerra carlista al inicio de la guerra civil que nos ofrece Iñigo Imaz, para terminar con las aportaciones de Pedro Barruso de la guerra civil y el franquismo, hasta la transición y la época actual.

AURKEZPENA

Leyçaur, ikerketa historikoen aldizkaria, 1990. urtean jaiotzen zen, jakina den bezala Andoaingo herria sortu zeneko 375. urtemugaren ospakizunen barne. Orain, hamalau zenbaki argitaratu ondoren, eta gure 400 urtemuga ospatu berri dugun honetan, LEYÇAUR 14 aurkezten dugu. Zenbaki honetan aurkezten dizuegun edukia berrikusketa edo laburbilduma da, Andoaingo historia orokorra, batez ere 26 urte hauetan *leyçaur* guztiak osatu dituzten lanetan oinarrituta, baina ez hori soilik.

Lan hau burutzeko enkargua, 2015eko ekainaren 29ko Alkatearen ebazpen bitartez, eta M.^a Rosa Ayerbe Iribar, Jose Antonio Rodríguez Ranz eta Susana Truchuelo García historiagile andoaindar ezagunek osaturiko Andoaingo historia orokorra burutzeko ikerketa lanerako dirulaguntza deialdiko Batzorde ebaluatzailearen proposamenez, “Miguel de Aranburu” Gipuzkoako Historialarien Elkarteari luzatu zitzaion. Elena Torregaray Pagolak koordinatu du lana eta argitalpenerako Alvaro Aragon Ruanoren laguntza izan du. Egitasmoan parte hartu duten historiagileak hauek dira: Jose Antonio Mujika-Alustiza, Carlos Olaetxea Elozegi, Jokin Lanz Betelu, Ana Galdos Monfort, Iñaki Garrido Yerobi, Estibaliz González Dios, Iñigo Imaz Martinez, Carlos Rilova Jericó, Iker Etxeberria Ayllon eta Pedro Barruso Barés.

Rikardo Arregik burutu eta 1970ean argitaratutako “Aspectos de la vida e historia de Andoain” salbu, ez genuen liburu bakar batean jasota gure herriko historia orokorra. Orain aurkezten dugun Andoaingo historia honetan, aipamen berezia merezi izan duten gertakizunak bildu ditugu edo gure herria azaltzen zaigu historiako protagonista bihurtu denean. Protagonista gizonezkoa zein emakumezkoa izan, ikuspuntu guztiak aintzakotzat hartzen saiatu garelako, baita historian hainbeste alditan, gehiegitan tamalez, gizonekoak bezain protagonista izan arren, ahaztuak, ezeztatuak izan diren emakume horienak ere.

Lan hau lan askoren batuketara da, Jose Antonio Mujika-Alustizaren Adarra eta Belkoain inguruko historiaurreko jendeztatzearena eta Carlos Olaetxearen Burdin Arokoa historiaurreari buruzko lanak; erromatarren garaiko Andoaini buruzko Jokin Lanzen ikerketa edo Ana Galdosek erakusten digun Erdi Aroko herrixkarena, Iñaki Garridok azaltzen digun hedatze garaian barrena eta Estibaliz Gonzalezek aldatuen mendea deituriko XVII.era, ondoren, Carlos Rilovak itzal batzuk izan zituen argien mendera eramango gaitu eta baita XIX mende motzera ere. Azkenurreko, Iñigo Imazek modernizazio bilakaera osoa eskaintzen digu, azken guda karlistatik guda zibilaren hasiera arte; eta bukatzeko Pedro Barrusok egindako ekarpena: gerra zibila, frankismoa, transizioa eta egungo garaia ikertuz.

Este número es por tanto, además de una recapitulación, un punto de partida, de apertura de nuevas incógnitas y amplias posibilidades. Y... ¿a partir de ahora, qué? Se nos plantea la disyuntiva de seguir siendo una revista impresa y digital, o abandonar definitivamente el papel y centrarnos en el ámbito digital. Asimismo debemos analizar si continuar publicando trabajos que previamente hemos subvencionado, o nos centraremos en monografías, tesis... inéditas, que creamos interesantes o que hayamos incluso encargado porque entendemos que falta completar un periodo o un aspecto de nuestra historia... Todas estas cuestiones están abiertas...

Aunque la valoración de lo realizado hasta el presente no puede ser más positiva, no debemos caer en la autocomplacencia y creemos que es hora de reflexionar, de pensar, de tener en cuenta los cambios producidos en nuestro mundo en este último cuarto de siglo. Desde los avances tecnológicos y todo lo que ha traído consigo de intercomunicación, inmediatez, socialización de recursos... todo ello nos lleva a replantearnos el futuro de una revista como LEYÇAUR.

Hemos de continuar con el sistema de ayudas a la investigación o debemos explorar otros caminos, debemos abrirnos a otras disciplinas, extender incluso nuestro ámbito de actuación, interactuar con la Universidad... Como podemos observar, no falta material para el debate.

Zenbaki honek, beraz, gure historiaren nondik norakoak berrikusteko paradaz gain, abiapuntua eskaintzen digu ikerkizun ezezagun eta aukera berri eta zabalak bila jotzeko. Eta... hemendik aurrera, zer? Zalantza dugu aldizkari inprimatua eta digitala izaten jarraitu ala papera betirako alde batera utziz eremu digitalean ez ote dugun murgildu behar. Era berean, erabaki beharko genuke aurretik gure dirulaguntza jaso duten lanak argitaratzen jarraituko dugun edo, aldiz, ez ote ditugun argitaratu behar interesgarritzat jotako argitaragabeko monografiak, tesiak..., edota gure historia ezagutzeko osagabe dagoela deritzogun aro edo atal bati buruzko ikerketa enkargua. Atal hauek guztiak galdera ikurrez irekita daude.

Orain arte egindakoaren balorazioa oso baikorra izan arren, ezin dugu autoatseginkerian erori, eta hausnarketarako, gogoetarako garaia dela uste dugu, azken mende laurdenean eman diren aldaketak kontutan hartuz. Aurrerapen teknologikoen beraiekin dakartzaten interkomunikazioa, berehalakotasuna, baliabideen gizarteratzea... horiek guztiak LEYÇAUR bezalako aldizkariaren etorkizuna birplanetatzera garamatzaite.

Ikerketarako laguntzen aukerarekin jarraitu behar dugu ala beste bideak jorratzen hasi behar dugu, beste arloetara ireki behar gara, gure eremua zabaldu, agian Unibertsitatearekin batera... Ikus dezakezueenez ez da ez gairik falta eztabaidarako.

INTRODUCCIÓN

Si bien Andoain no surgió como villa hasta 1615, su historia es extensa y se remonta hasta la Prehistoria y la Edad Antigua. No obstante, a pesar de que en su territorio y jurisdicción actuales encontramos vestigios tanto prehistóricos como protohistóricos y de época romana, lo cierto es que Andoain no entró en la "Historia" en su acepción primigenia, esto es, a través de fuentes escritas, hasta la Baja Edad Media, cuando comienzan a aparecer términos que definían lo que en la actualidad supone el municipio de Andoain, tales como "Lizaur", "Leizaur", "Ayndayn", "Aynduayn", "Anduain", "Andoain". Sin caer en el determinismo geográfico, Andoain ha sido a lo largo del tiempo, desde la Prehistoria hasta la actualidad, un cruce de caminos y ríos que la han convertido en un punto estratégico dentro del territorio guipuzcoano. El hecho de hallarse en la confluencia de los ríos Leitzarán y Oria, ubicación, por supuesto, no elegida al azar por sus primeros pobladores, ha permitido a Andoain contar con una riqueza de recursos naturales esencial para el sostenimiento de los grupos humanos que a lo largo de la historia se han asentado en ella: bosques que aportaban madera para la construcción, combustible para hacer frente a las inclemencias climáticas o desarrollar actividades artesanales e industriales, alimento para el ganado y los seres humanos, tierras de cultivo y zonas de pasto en las que desarrollar actividades primarias, ríos y regatas, cuya fuerza hidráulica ha movido molinos y ferrerías o cuyas aguas han servido para dar de beber a personas y animales, limpiar tejidos y curtidos o depositar restos de desecho y restos industriales. Así mismo, Andoain ha tenido la "fortuna" de hallarse enclavada cerca de la frontera con Navarra, con la que se comunicaba a través del valle del Leitzarán o del cercano paso de Belauriate, y en el recorrido de lo que en su día se denominó el valle de Fuenterrabía, por el que discurría el camino real que, desde Zegama se dirigía hacia Behobia y la frontera con Francia. Andoain, desde tiempos prehistóricos, ha sido una encrucijada de caminos, aunque a lo largo del tiempo el trazado de las principales rutas que han recorrido la provincia de Gipuzkoa ha ido cambiando. A pesar de dichos cambios, Andoain siempre ha sido paso obligado para los viajeros, comerciantes y trajineros que atravesaban Gipuzkoa desde la Meseta o el occidente navarro en dirección a la frontera de Francia o a San Sebastián, tanto durante el período medieval como en las épocas moderna y contemporánea, fuese desde San Adrián o desde Arlaban, a través del Camino Real de Coches en el siglo XVIII, la N-1 o la actual A-1.

Ambos aspectos, tanto el hecho de ser cruce de caminos como el de la ubicación en la confluencia de cauces fluviales van a ser el *leitmotiv* y los principales argumentos a partir de los cuales se va a desarrollar la historia de Andoain que aquí presentamos. Una Historia de Andoain que es la historia de los andoaindarras, de

SARRERA

Andoain ez zen antolatu hiribildu gisa 1615era arte; baina haren historia ez da horregatik laburra, lehenengo lorratzak aurkitu nahi badira oso atzera egin behar baita denboran. Baina egia den arren Andoaingo oraingo lurraldean aurre-historiako aztarnak aurkitu ditugula, onartu behar da Andoain ez zela estreinatu Historian (haren zentzu hertsian, hots iturri idatzien bidez) Beheko Erdi Arora arte, orduan hasi baitziren agertzen zenbait termino gaur egun Andoain izenarekin ezagutzen dugun udala definitzen zutenak, hala nola "Lizaur", "Leizaur", "Ayndayn", "Aynduayn", "Anduain" edo "Andoain". Determinismo geografikoaren tranpan erori gabe, esan daiteke Andoain aurre-historiatik gaur egunera arte bide-gurutze bat izan dela: lehorrekoa eta ibaien artekoa, hain zuzen. Leitzarain eta Oria ibaien elkargunean egotea ez zen, noski, lurralde horretako lehenengo biztanleek ausaz aukeraturiko kokalekua; eta horren ondorio zuzena izan da Andoain, natur baliabideen aldetik, toki ezin aberatsagoan egon dela beti, eta horrek ahalbidetu du herriaren historia guztian bertan giza taldeak bizi ahal izatea etenik gabe. Lurralde bat zen Andoain, zeinean egurra zegoen eraikitzeko, halaber, material sukorra eguraldiaren gogortasunari aurre egiteko zein artisautza eta jarduera industrialak burutzeko; zonalde bat izan da Andoain ganadua bazkatzeko larreak antolatzeo aukera izan duena, landa-lurrak ere bertan kokatzeko moduarekin. Lehen mailako sektore baten oinarria jartzeko adina bitarteko izan ditu azken finean, baina, baita ere izan ditu ondoan errekek eta ibaiak, zeinen indarra aprobetxagarri zen erroten eta burdinolen funtzionamendurako, baita ere pertsonak eta animaliak edateko, edo oihalak garbitzeko edo larrua zurratzeko, baita zaborrak eta hondakin industrialak isurtzeko ere. Era berean, Andoainentzat guztiz "zorionekoa" izan da Nafarroako muga ondoan egotea, harekin Leitzarenetik edo Belauriateko igarobidetik komunikatuz, baita ere Hondarribiko aranaren izena hartu zuen ibilbidean (Zegamatik Behobiara zihoan bidea, Frantziarekin konektatuz) zeharreko puntu batean egotea. Beraz, aurre-historiatik igarobidea izan da, eta, nahiz eta Gipuzkoako lurraldeak denboran joanean bide nagusiek trazadurak aldatu, Andoainek ez du inoiz galdu izatera hori; beti gorde du bidatzien, merkatarien eta garraiolarien igaroleku eta geraleku izatea (Gaztelako goi-ordokitik edo Nafarroako mendebaldetik zetozenak eta zihoazenak Frantziara edo Donostiara). Hori izan zen horrela Erdi Aroan zein Aro Moderno eta garaikidean ere (Sanadratitik edo kotxeen Errege bidetik XVIII. mendean, edo guretzat guztiz ezagunak diren N-1 eta A-1 errepede eta autobidea).

Bi alderdi horiek, bai bidegurutzea bai ibaien ibilguen batura izatea, erabakigarriak izan dira Andoaingo historiaren nondik norakoan. Andoaingo historia andoaindarren historia da, herriko gizon-emakumeena, bertan sortu eta bizi direnena eta zirenena, edo kanpora joan behar izan dutela eta aldi baterako edo

los hombres y mujeres que han vivido en Andoain o que lo han llevado en sus corazones pese a tener que pasar largas temporadas alejados de él o tener que emigrar definitivamente a otras latitudes. También lo es la de aquellas personas que, a pesar de haber nacido fuera del municipio, de ser inmigrantes, con su trabajo y esfuerzo han contribuido al desarrollo, modernización y crecimiento del mismo, cuyas segundas generaciones, nacidas ya en dicha población, se sienten orgullosas de ser andoaindarras, y llevan el nombre de Andoain por toda la geografía nacional e internacional.

El espacio que ocupa lo que hoy conocemos como Andoain comienza a mostrar signos de habitación permanente ya durante la Prehistoria, ratificando una vez más su carácter de zona de paso estratégica y propicia para el asentamiento de población por las condiciones geográficas ya señaladas. De esos primeros habitantes poco sabemos más allá de sus hábitos para garantizar la supervivencia más básica, agricultura, ganadería, caza, etc., y de la importancia que concedían a los ritos funerarios. Es precisamente este último dato el que pone de manifiesto el hecho de que nos encontramos ante una verdadera comunidad que comparte no sólo las necesidades de la vida cotidiana sino una preocupación por el más allá y la creencia de que hay una continuidad, un nexo de unión entre los que viven y los que mueren, que empieza a conformar las raíces de una identidad propia. Esa comunidad va a ir fortaleciéndose paulatinamente a lo largo de los siglos y al entrar en la Edad del Hierro se convierte ya no sólo en un grupo de personas con intereses comunes, sino en un lugar —el poblado fortificado de Buruntza— que identifica geográficamente el emplazamiento según las premisas iniciales que hemos mencionado: es un enclave defensivo, que controla los pasos y que aprovecha el entorno, los ríos, para garantizar su desarrollo económico y social. Precisamente, con la llegada de los romanos, a partir del siglo I a. C., la ubicación de Andoain en un punto intermedio entre las dos principales rutas —la de la costa y la terrestre—, que incardinan de Este a Oeste el territorio del País Vasco y lo ordenan de acuerdo con las necesidades del Imperio romano, hacen del entorno andoaindarra un enclave comercial y artesanal que muestra una especial vitalidad incluso durante la Antigüedad Tardía, en el entorno de la actual ermita de San Esteban de Goiburu, cuando otras zonas del territorio guipuzcoano aparecen en franca decadencia o sumidas en una oscuridad total con respecto a su desarrollo histórico.

Durante la Edad Media, Andoain como tal se inserta en ámbitos jurisdiccionales más amplios, pivotando entre las grandes villas de su entorno, es decir, San Sebastián y Tolosa. Sus habitantes, como en otras áreas de la geografía guipuzcoana trataron de dominar el espacio en el que vivían y ello les llevó a ir paulatinamente conformando un espíritu colectivo. A pesar de no tener título de villa hasta el siglo XVII, Andoain contó pronto con un “concejo”, probablemente desde la Alta Edad Media, reunión de todos sus vecinos y moradores que tomaba las decisiones y medidas que garantizaban la perfecta armonía y convivencia de sus miembros y la racional explotación de los recursos que le pertenecían. En estos tiempos en los que el derecho consuetudinario y la costumbre adoptaron fuerza de ley, se fue constituyendo una comunidad, generalmente en torno a las iglesias y parroquias

betiko, haren bihotzetan jaioterria eraman dutenena orain eta lehen, baita ere, jakina, kanpoan jaio arren, Andoainera etorri direnena, bizitzera eta lan egitera, seme-alabak bertan izan dituztenak, haien ahalegin eta izerdiari esker herria hazi da eta andoaindar peto-petoak dira haien ondorengoak, eta izango dira etortzen jarraitzen dutenen horienak, gaur egun are urrutiagoko lurraldeetatik datozen horienak, hain zuzen.

Andoain izenarekin ezagutzen dugun espazio fisikoa Historiaurretik hasi zen erakusten habitatze-zeinurik, lehen esan dugunez. Izan ere, populazioak modu iraunkorren bertan lekutzeko igarobide estrategiko egokiaren zantzuak hain garai zaharretan ere nabarmentzen dira. Orduko lehenengo biztanleez ez dakigu askorik, haien azturez zerbait: bideratuta zeudela oinarrizko biziraupena bermatzera: nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, etab.; eta hileta-errituei ematen zieten garrantziaren berri badugu. Hain zuzen ere, azken datu horrek erakusten du benetako komunitate baten aurrean gaudela, partekatzen zituena ez bakarririk eguneko bizitzaren beharrak, baina baita ere kezka bat hil eta geroko biziaz, sinesmen batzuetan gauzaturikoa, inplikatzeko zuena lotura bat hildakoen eta bizien artean, ezartzen zituena erro sakonak lurtean identitate propio bat sortzeraino. Komunitate hori indartuz joan zen pixkanaka belaunez belaun, eta Burdin Arora sartzean ez da gehiago izango pertsona talde bat soilik, interes komunak zituena, baizik eta leku finko bat: Buruntzako herri gotortua, identifikatzen dena geografikoki honako osagai honen gainean: babeserako gune bat, igarobideak kontrolatzeko, ingurua profitatzen zuena (ibaia) garapen ekonomiko eta soziala bermatzeko.

Erromatarren etorrerarekin K.a. I. mendetik, Andoain, berriro, erdibide bat bihurtu zen, bi bide nagusiren artekoa, kostaldekoa eta lurtekoa, ekialdetik mendebaldera Euskal Herriko lurraldea inkardinatu eta ordenatzen zuena Erromatar Inperioaren beharren arabera. Gauzak horrela, Andoaingo lurraldearen ingurua artisautea- eta merkataritza-enklabe bihurtu zen, bizitasun handikoa —are Antzinate berantiarren ere— Goiburuko San Esteban basilikaren inguruan, Gipuzkoako beste eremu batzuk garapen historikoari begira dekadentzia edo iluntasun handian sarturik zeuden arren.

Erdi Aroan, Andoain herria gaindikatzeko zuten arlo juridikozional handiagotan sartuta gelditu zen: ondo-ondoko hiribilduen mende, Donostia eta Tolosa. Baina Herriko jendea saiatu zen, Gipuzkoako beste toki askotan legez, inguruan zuen espazioa menderatzen; eta, denborarekin, horrek espiritu erkidego bat sorrarazi zuen. XVII. mendera arte hiribildu gisa antolatuta ezin izan bazuen ere, Andoainek kontzejua izan zuen oso goiz, ziur asko Goi Erdi Aroan bertan; herritar eta biztanle guztiek hartzen zituzten erabakiak, eta ezartzen zituzten jarraibideak herriko bizikidetzara eta harmonia bermatzeko, eta lurralde erkidegoko baliabideen ustiapena antolatzeko. Ohitura lege zen garai horietan komunitate bat sortuz joan zen, elizen eta parrokiaren inguruan batez ere, zeinak eraikitzen hasi ziren gaur egungo Andoaingo aldirietan dauden mendien magaletan. Edonola ere, Andoain bezala ezagutzen duguna egun zatikaturik zegoen hiri entitate txikiagotan: Zumea, Leizaur eta Andoain. Azkena, San Martin elizaren inguruan kokatua, zentro administratibo

que fueron surgiendo en ese pequeño valle que forman las montañas que rodean la actual Andoain. Si bien lo que hoy conocemos como Andoain estaba dividido en tres entidades más pequeñas, conocidas como Zumea, Leizaur y Andoain, esta última, en torno a la iglesia de San Martín, se fue convirtiendo en el centro administrativo, religioso y poblacional de dicha comunidad. Precisamente, la primera mención al topónimo “Ayndayn” está relacionado con el cobro de diezmos por parte de la iglesia, concretamente, el famoso documento de los corriedos de la diócesanos de Pamplona, que fue redactado en 1350.

Como en el caso de otros municipios guipuzcoanos, si bien Andoain, ya desde fines del siglo XIV, se vio obligada a buscar la tutela de otras villas, primero San Sebastián y después Tolosa, el espíritu y sentimiento de colectividad que presidía las relaciones entre sus vecinos y moradores, y los excesos de dichos entes municipales llevaron a Andoain y sus habitantes a buscar su propio camino. A pesar de que los vecindamientos respetaron la existencia de los concejos locales y su jurisdicción, en lo que atañía al día a día y las relaciones de sus habitantes, y el aprovechamiento de los recursos naturales por parte de sus vecinos y moradores, la obligación de acudir a la villa para llevar a cabo todos los trámites administrativos y, en numerosas ocasiones, notariales, de asistir a los alardes y llamamientos militares de la villa, repartimientos y requerimientos fiscales, y los intentos de asimilación cada vez más insoportables por parte de las villas, acabaron por convencerles de la necesidad de obtener su villazgo y desarrollar sus propias instituciones, esto es, convertirse en una villa. El camino hacia el villazgo fue largo y no estuvo exento de eventos desagradables y largos y costosos pleitos y protestas, que sin duda fueron ahondando la brecha entre las diferentes comunidades, la de la villa cabecera y la de la aldea vecindada.

Finalmente, la oportunidad se presentó durante el reinado de Felipe III, en el que la Corona, ávida de ingresos que cubriesen sus bancarrotas y asfixia económica, tras un siglo de luchas de la Monarquía Hispánica en Europa, que la dejaron exhausta y sus arcas vacías, abrió las puertas a las posibilidades de emancipación. La compra del villazgo no le salió barata a Andoain, que se vio obligada a vender parte de sus bienes concejiles, dividirlos en bienes de propios —cuyo arrendamiento permitirá hacer frente a sus gastos más perentorios— y bienes comunales —en principio, de uso libre para vecinos y moradores, aunque este se fue recorriendo paulatinamente—. No se debe olvidar, que la exención de la jurisdicción de Tolosa, además de generar de forma directa una serie de gastos a consecuencia de la compra del villazgo, supuso el desarrollo de la administración y burocracia locales (alcaldes, jurados, fieles, etc.), que contaban con un sueldo al que había que hacer frente, la edificación de lugares de reunión e instancias concejiles, edificios de uso público, mantenimiento de caminos y puentes, etc. No obstante, al mismo tiempo, ello permitió la creación y fortalecimiento de órganos de gestión municipal, que seguramente ya venían funcionando de facto desde la etapa medieval y el desarrollo de las instituciones locales.

Andoain fue durante los siglos modernos una pequeña aldea y villa, dentro del marco de la Monarquía Hispánica, que no vivió al margen de los grandes procesos

bihurtuz joan zen, baita ere gune erlijioso nagusi eta biztanle gune garrantzitsu. Gauzak horrela “Ayndayn” toponimoa aipatzen den lehenengo aldiak zerikusia du elizaren hamarrenekin, zehazki 1350ko Iruñeko Elizbarrutiko dokumentu ospetsu batean aipatzen direnak: korriedoena.

Gipuzkoako beste herri askok bezala, Andoainek, XIV. mendearen bukaeratik dagoeneko, hiribildu baten tutoretza bilatu behar izan zuen: lehenengo, Donostiarena, eta, gero, Tolosarena. Baina, herriko biztanleen artean nagusitu zen erkidego-sentimenduak —hiribildu menderatzaileen gehiegikeriak akuilatua— bere bide propio eta beregaina jorratzera bultzatu zuen Andoain. Auzo gisa hiribildu baten mendeko izateak tokiko kontzejua kaltetu ez zuen arren, biztanleek egoera berri bat pairatu behar izan zuten egunekoa aurrera ateratzeko, baliabide naturalen kudeaketari dagokionean behintzat; baina izapide administratiboak eta askotan notarialak egitera hiribildura joan beharrak (eta alardeei eta deialdi militarrei erantzun beharrak), gehi eskakizun fiskalak eta asimilazio-saiakuntzak gero eta bortitzagoek zera sortu zuten Andoaingo biztanleen artean, ezinegon gero eta nabarmenagoa hiribilduarekiko, eta kontzientzia baten piztuera: argi izaten hasi ziren benetan beregainak izateko beren hiribildu propioa sortu behar zutela beren erakunde berezkoekin. Hiribildu gisa antolatze bidea luzea izan zen, eta gertaera desatseginez josita egon zen, tarteko auzi eta ika-mika asko; zalantzarik gabe, horrek auzo-herriaren eta hiribilduaren harremana gaiztotu zuen, pixkanaka, modu atzeraezinean.

Azkenik, hiribildu gisa antolatze aukera erabatekoa Felipe III.aren erresumaren denboran gertatu zen. Koroa diru-sarreren gosez zegoen, itota ekonomikoki, eta porrotak estali behar zituen (mende bateko borroken ondoren Europan nolabaiteko nagusigoari eutsi nahiez). Hiribildu izaera erostea ez zen merke atera: Andoainek beren ondasunen zati bat saldu behar izan zuen, eta, horretarako, sailkatu behar izan zituen: propioen ondasunak, zeinek, akuraren bidez, ahalbidetzen zioten gastu premiazko erantzutea; eta ondasun komunak, erabilera askekoak, bertako herritar eta biztanleen probetxamendurako (erabilera askea urrituz joan zen arren). Ez dugu ahaztu behar Tolosako jurisdikziotik jare gelditzeak —gastuak eragiteaz batera, erosi behar baitzen hiribildutza— administrazio berri bat antolatzea zekarrela berekin, hots burokrazia bat sortu beharra toki mailan (alkate, zinegotziak...), zeinak soldatak ekarri zituen ondorio; gainera, biltzar-tokiak eraiki beharra zegoen, eta erabilera publikoko beste eraikin batzuk, bideak eta zubiak konpondu behar ziren eta abar. Nolanahi ere, sortu ahal izan ziren kudeaketa-organo berriak, eta lehendik zeudenak (Erdi Arotik ziur aski) indartu egin ziren. Hots, tokiko erakundeak garatu ziren.

Andoain, Aro Modernoko mendeetan, herri eta hiribildu txiki bat zen, Hispaniar Monarkiaren barruan, eta une historiko jakingarrien zurrunbiloak ezagutu zituen. Gertaera horien guztien pasadizo askoren protagonista izan zen askotan. Aldez edo moldez, Andoainek gozatu zituen Amerikako konkistaren eta kolonizazioaren onura ekonomikoak, baina baita ere monarkiaren Europako kanpo politikaren ondorio negargarriak batzuetan (eraso frantsesak barne). Andoaindar batzuek parte hartu zuten Amerikako Estatu Modernoen sorreran, eta aberastu egin ziren

históricos. Bien al contrario, Andoain sufrió las embestidas de la política exterior hispana y los ataques franceses a consecuencia de ella, se benefició de la conquista y colonización de América, algunos de sus principales personajes participaron del desarrollo de los Estados Modernos y se enriquecieron gracias al desempeño de cargos y títulos en la Corona castellana, asistieron a los cambios provocados por el impacto de la Pequeña Edad del Hielo y la generalización del cultivo del maíz, a consecuencia del cual tuvieron lugar importantes modificaciones en actividades como la agricultura y la ganadería, el retroceso de los bosques, la construcción del Real Camino de Coches, el impacto de las nuevas ideas procedentes de Europa, como el Renacimiento, el Barroco o la Ilustración. Si bien permaneció ajena, al menos de manera directa, a protestas como las matxinadas, al igual que el resto de la geografía guipuzcoana y vasca asistió al largo final del Antiguo Régimen, a la ruptura de la economía moral y el concepto paternalista de la sociedad, dando paso al individualismo liberal y librecambista, que provocó la ruptura de la sociedad guipuzcoana, desde mediados del siglo XVIII, dando lugar a prolongados enfrentamientos intestinos, cuya máxima expresión serán las dos guerras civiles, las guerras carlistas, que presidieron el convulso siglo XIX.

Un siglo XIX en el que Andoain asistió perplejo a los profundos cambios económicos y sociales que se produjeron. A pesar de ser una sociedad claramente conservadora, de entre la cual surgieron insignes personajes como el padre Larramendi, en la que el carlismo tuvo un enraizamiento profundo y dilatado, que acabaría desembocando en versiones integristas y nacionalistas, Andoain no se quedó anclada en el tiempo y formó parte de las diferentes revoluciones industriales que tuvieron lugar durante los siglos XIX y XX en la geografía vasca y española. Gracias a esos procesos históricos, nuevos aportes demográficos llegaron desde fuera de la geografía vasca, dando lugar a una sociedad plural, a veces de contrastes, polarizada, enfrentada, pero a la postre rica en todos los aspectos de una sociedad avanzada, una sociedad que sin renunciar a sus raíces, historia e idioma, ha sabido a lo largo de la historia abrirse a nuevas culturas y gentes, integrarlas para caminar juntos hacia un futuro común y de progreso.

Transcurridos los cuarenta años de oscuridad, prohibición y dictadura, Andoain ha sido protagonista, para lo bueno y lo malo, de treinta años de transición y democracia, en los que ha sabido subirse al carro de la modernidad y el progreso, a pesar de los embates de la violencia, en todas sus facetas. A día de hoy, Andoain afronta el futuro desde la fortaleza que aporta el sufrimiento experimentado y superado, desde el convencimiento de que en el siglo XXI únicamente caben la acción conjunta desde la no violencia y parámetros democráticos, desde el acogimiento de todas las personas que forman parte de su comunidad, sin tener en cuenta la raza, la religión, las ideas políticas, la procedencia o el sexo. Una sociedad unida, que no monolítica, variada, tolerante y dispuesta a hacer frente, una vez más, a las dificultades a las que la historia y la realidad del momento le somete, en unos tiempos en los que la globalización y los procesos económicos —en estos momentos críticos— tienden a diluir las pequeñas construcciones sociales y a difuminarlas en estructuras más globales. Esperamos que esta Historia de Andoain contribuya a un mejor

Gaztelako Koroarentzako karguak eta tituluak betetzen. Izotz Aro txikiaren inpaktuaren ondorioak pairatu zituen, eta artoaren kultiboa orokortzearena ere bai. Nekazaritza eta abeltzaintza eraldatu ziren, eta basoek atzera egin zuten. Kotxeen Errege Bidearen sorreraren lekuko eta protagonista ere izan zen, eta Europatik zetozen ideia berrien pausaleku edo igarobide ere, hots, Ilustrazioak eta Barrokoak marka utzi zuten hiribilduan. Itxuraz matxinadak ez zuten eragin handirik izan bertan, zuzenki behintzat ez, baina Antzinako Erregimenaren bukaera ere etorri zen, eta Gipuzkoako geografiak hori bizitu zuen bere giharretan: ekonomia moralaren bukaera eta gizartearen kontzeptu paternalistaren amaiera, indibidualismo liberalaren jaiotza eta truke askearen ekonomiaren sorrera, zeinek eragin zuten gizarte gipuzkoarraren haustura bat, bi gerrate zibil sortzeraino, gerrate karlistak —XIX. mendea zehartu zutenak konbultsio handiz—.

XIX. mendean Andoainek aldaketa ekonomiko eta sozial sakonak ikusi zituen harrিতuta: gizarte kontserbatzailea izan arren, non jaio ziren mundura aita Larramendi bezalako pertsonaia entzutetsuak, zeinean karlismoak erro sakonak eta luzeak egin zituen (denboran nazionalismoan ala integrismoan bukatzeko); Andoain ez zen denboran ainguratuta gelditu, eta parte hartu zuen Euskal Herriko eta espainiar estatutuko XIX. eta XX. mendeko iraultza industrialetan. Prozesu historiko horiei esker, jende berriak etorri ziren Euskal Herrira, eta, horrela ernamuindu zen, Andoainen ere, gizarte plural bat, kontrasteekin batzuetan, polarizatua eta elkarri aurre emana ere, baina, edozein kasutan, aberatsa eta aurreratua; sustraiei uko egiteko prest ez zegoena eta ez dagoena, ez bere historiari eta berezko hizkuntzari ere, aldi berean kultura berriei irekita egonik, haiek integratuz denek batera progresioko etorkizun erkidego baterantz.

Berrogei urteko iluntasuneko, galarazpeneko eta diktadurako aldi baten ondoren, Andoain protagonista bihurtu da (onerako eta txarrerako) trantsizio eta demokraziako aldi batean, eta denbora berri honetan jakin du igotzen berrizaletasunaren eta aurrerapenaren trenera —bortizkeria ez bada falta izan denbora horretan—. Gaur egun, Andoainek etorkizunari aurre egiten dio sendotasunez, jakinda, jasan-dako atsekaberen ondoren, XXI. mendeak izan behar duela indarkeriarik gabeko bat, parametro demokratikoz gobernatutako bat, zeinean bertako erkidegoa osatzen duten pertsona guztiek, haien jatorria edozein dela, bertan dutela lekua, edozein dela haien arraza, erlijioa eta ideiak. Gizarte batu bat, ez, ordea, monolitikoa, baina, bai anitza eta tolerantea, prest dagoena, beste behin ere, historiako eta mementoko egoerako zailtasunak gainditzeko, batez ere, globalizazioak eta prozesu ekonomikoak (oraingo egoera larrian) egitura sozial txikiak suntsitzera jotzen duten oraingo garai hauetan (egitura globalagoetan desagerrarazteko). Espero dugu eskuartean duzun Andoaingo Historia honek lagunduko duela herriaren iragana hobeto ezagutarazten, errepika ez daitezen aurrerantzean historiako errakuntzak, baita ere aurpegiatzeko etorkizuna andoaindar izatearen ezagutza handiago eta kontzienteago batez.

Oraindik asko dago idazteko herriaren historiari. Andoaingo Historia hau ez da behin betikoa. Egin behar dira oraindik ere azterketa sakonak, zalantzarik gabe,

conocimiento del pasado, que sirva para afrontar el presente y el futuro desde una perspectiva más consciente de lo que ha sido, es y, posiblemente, será el sentirse andoaindarra.

Son bastantes los ámbitos que quedan por descubrir. Por supuesto, esta Historia de Andoain no es la historia definitiva. Para un futuro quedan estudios más profundos que posiblemente aparecerán en nuevos números de la revista Leyçaur. Queda por llevar a cabo un mejor conocimiento del período altomedieval, aunque seguramente, ante la falta de fuentes escritas, deberemos esperar a los resultados de las campañas arqueológicas que se vayan realizando en próximas décadas. Así mismo, se debe realizar un vaciado exhaustivo de la información notarial que sobre Andoain se alberga en el Archivo General de Gipuzkoa, no sólo en las escribanías de Andoain —que han sido parcialmente utilizadas en algunos de los estudios aquí presentados—, sino también en las de Tolosa y otras localidades cercanas a Andoain. Así mismo, se hace preciso un análisis más pormenorizado de la documentación albergada en el fondo de corregimiento del mencionado Archivo General de Gipuzkoa, o en el fondo de procesos del Archivo Diocesano de Pamplona, que permita, junto a la documentación notarial, un mayor conocimiento de la realidad social, económica, religiosa o cultural de Andoain. Entre otras cuestiones, quedan pendientes el estudio de las mujeres andoaindarras para los siglos modernos o las últimas décadas del siglo XX o el de la presencia y desarrollo del euskera. Finalmente, continuar con el estudio de la documentación existente fuera de las fronteras del territorio guipuzcoano, en archivos estatales, tales como el Archivo Histórico Nacional, Archivo General de Simancas, Archivo General de Indias o el Archivo de la Administración de Alcalá de Henares, sin duda alguna, permitirán un conocimiento más real y certero del impacto de Andoain en la historia vasca, española, europea y mundial. Esta aportación pretende únicamente ser una síntesis de lo investigado hasta la fecha y un punto de partida para futuras investigaciones.

Leyçaur aldizkarian azalduz jarraituko dutenak luzez. Falta zaigu oraindik Goi Erdi Aroko gauza asko aurkitzeko, eta ez dugunez epe horri buruz iturri idatzi gehiagorik, emaitzak etorriko dira aurrerantzean kanpaina arkeologikoen bitartez. Aldi berean, egin behar da hustuketa zehatz bat Andoaingo informazio notarialaren gainean, zeina aurkitzen baita Gipuzkoako Artxibategi Nagusian, eta ez bakarrik Andoaingo eskribautzena —erabili ditugunak liburu honetan azaltzen diren azterketetako batzuetan—, baina baita ere Tolosakoak eta Andoaingo beste herri hurbilekoak ere. Era berean, sakonago ikertu behar dira Gipuzkoako Artxibategi Orokorreko Korrejimenduko dokumentu-multzoa eta Iruñeko elizbarrutiko artxibategiko prozesuen agiri-multzoa, zeinek, notarioen dokumentazioarekin batera, ahalbidetuko baitute Andoaingo errealitate erlijioso, kulturala eta ekonomikoa hobeto ezagutzea. Bukatzeko, Gipuzkoako mugetatik kanpo —estatuko artxibategietan, hala nola Artxibategi Historiko Nazionalean, Simancaseko Orokorrean, Indietakoan, eta Alcala de Henareseko Administraziokoan— dagoen dokumentazio guztia aztertzen jarraitzeak, zalantzarik gabe, ahalbidetuko luke ezagutza errealago eta egiaziagoa bat izatea Andoaini buruz, eta haren eraginari buruz gure lurraldeko eta haragoko historian. Eskuaratean dugun ekarpen honexek sintesi bat besterik ez izateko asmo apala du, orain arte ikerturikoaz, eta, halaxe, abiapuntu bat izatearena ere bai etorkizuneko ikerkuntza berrietarako. Hori da erronka.